

# Emakumearen arazo ekonomikoen analisi teoriko orokorra

**Mertxe Larrañaga**  
EHUko irakaslea

Aukera-berdintasuna ia herri guztiek onartzen duten hastapena da eta sexuaren araberako diskriminazioa legez debekatuta dago. Hala ere, eguneroko errealitateak erakusten digu emakumeek gizonek baino askoz aukera gutxiago dituztela arlo askotan, eta bereziki ekonomikoan. Gaur egun lanaren sexu-zatiketa ematen da nahiz etxe barruan nahiz kanpoan, eta horregatik, emakumearen arazoak aztertzerakoan ekonomia osatzen duten bi azpistema, erreprodukzio-sistema eta produkzio-sistema, ikertzea behar-beharrezkoa da. Artikulu honen helburua emakumeak aipaturiko bi sistema hauetan jokatzeko duen papera erakustea da, bai teorikoki bai eta datuen bidez ere. Aldi berean, hain nabarmena den bereizkeria hori argitzeko hainbat teoriak ematen dituzten arrazoiak azaltzen ahaleginduko gara; Familiaren Ekonomia Berria, Giza Kapitalaren Teoria eta Lan Merkatuaren Zatiketaren Teoria batez ere.

The principle of equal opportunities is broadly accepted in most countries and gender discrimination is forbidden by law. Nevertheless, the everyday life shows that women have much less opportunities than men in most fields, including the economic one. Nowadays, sexual division of labour exists, both within and out of domestics. Therefore, to analyse women and gender discrimination two systems have to be taken into account: reproduction and production systems. The article's main aim is to show women's function in both systems, from a theoretical and a practical perspective. At the same time, we will outline the reasons why different theories point out gender discrimination: Family's New Economy, Theory of Human Capital and Theory of Labour Market Division.

## 1. Lanaren zatiketa sexuala

Antzinatek emakumearen menpekotasuna gizonarekiko nabarmena izan da eta gaurko gizarte guztietan ere bigarren mailako postua du arlo sozial, politiko, ekonomiko nahiz kulturalen. Egia da, noski, kulturaren arabera emakumeen paperean ezberdintasun handiak izaten direla, baina halaber ukazina da ez dela ezagutzen emakumezkoak gizonzkoak baino botere handiagoa duen gizarterik, eta aukera berdinak ematen dituenik ere ez.

Aukera-berdintasuna ia herri guztiek onartzen duten hastapena da eta ia guztietan debekatuta dago sexu, erlijio, ideia politiko, arraza edo eta ezaugarri fisikoen arabera diskriminazioa. Hau teorian, baina errealitatea bestelakoa da eta arazo fisikoak dituzten pertsonak Europako Batasunean lanik gabe egoteko askoz posibilitate gehiago duten bezala (lau aldiz gehiago zehazki) eta Estatu Batuetan eskola, ume hispanoek ume "zuriek" baino askoz lehenago uzten duten bezala, horrela emakumeek ere gizonen baino askoz aukera gutxiago dute.

Honela dio behintzat PNUDek argitaratu duen Giza Garapenari buruzko azken txostenak<sup>1</sup>. Txosten honen arabera gizarte guztietan emakumeen aukerak gizonzkoenak baino txikiagoak dira, berdintasun handienekoa Suedia delarik 0,92ko berdintasun-indizearekin (1 baloreak berdintasun osoa azalduko luke). Noski, ezberdintasunak nabarmenagoak egiten dira zenbat eta garapen-maila txikiagoa

izan herri batek. Lan honetan azpimarratzen da Espaniaren kasuan Giza Garapenaren Indizean 9. tokian aurkitzen den bitartean sexu-berdintasunari dagokionez 35. postuan aurkitzen dela. Harrigarria bada ere, bi adierazle hauen artean ezberdintasun negatibo handiena duen herria da. Arrazoa emakumeek sarreretan duten partaidetza txikiagoan aurkituko litzateke, bai populazio aktiboan duten parte hartzea txikia delako eta bai beraien batezbesteko alokairua nabarmen txikiagoa delako ere.

Badira, dudarik gabe, "femeninoak" bezala kalifika daitezkeen hainbat arazo ekonomiko, hau da emakumeengan eragin berezia duten arazoak eta askotan ekonomiariek ahaztu edo baztertu egin dituztenak ohizko ekonomia gizartean dauden bi sistemetatik, batez bakarrik (gizonzkoak nagusiak diren ondasun eta zerbitzuen produkzio-sistemaz hain zuzen ere) arduratu direlako, beste sistema alde batera utziz, hau da, emakumeak aritu diren erreprodukzio-sistema (biologikoa nahiz lan-indarraren erreprodukzioa).<sup>2</sup>

Bi azpisisistema hauek, produkzioa eta erreprodukzioarena, askaezinak dira. Bata ezin da bestea gabe ulertu. Baina, nahiz eta logikak edo utopiak produkzio-sistemak erreprodukzio-sistemaren menpe egon behar lukeela erakutsi, azken helburua gizaki eta familien ongizatea lortzea baita, historikoki guztiz kontrakoa gertatu ohi da eta erreprodukzioa produkzioaren menpean egon da. "Emakumearen

1. Giza Garapenari buruzko txostena, 1995. Programa de Naciones Unidas para el Desarrollo (PNUD). Txosten honetan agertzen diren datuak 1992koak dira.

2. Produkzio- eta erreprodukzio-agenteen arteko banaketa hau partziala da emakumeak ere agertzen direlako produkzioan eta gizonak erreprodukzioan.

arazoaz”<sup>3</sup> arduratzen direnak bat datoz esaterakoan arazo horiek gizartean izan diren menpekotasun erlazioen ondorioa direla, hau da, lanaren zatiketa sexuala menpekotasun sozialak azaltzen duen fenomenoa dela. Aldatzen dira denbora eta kulturaren arabera, baina beti gizonezkoen dominazioak azaltzen duen fenomeno bezala ikus daitezke. Ez dakigu, zehazki, ez nola eta ez zein momentu konkretutan sortu den menpekotasun hau, nahiz eta argi egon hau kapitalismoaren aurretikoa dela<sup>4</sup>.

Lanaren zatiketa sexualari buruz hainbat teoria daude. Honela, eskola “unibertsalistak” dominazio patriarkala unibertsala dela dio, kultura guztietan ematen dena historiaren hasieratik, eta unibertsala izateaz gain saihestezina dela diote ideologia kontserbadoreko autoreek. Eskola “feminista errebisio-nistak” ez du onartzen, teoriarik behintzat, unibertsaltasuna bereizketa berdintasunarekin batera gerta daitekeelako. Hirugarren eskolak ere, eskola “aldaketariak”, dominazioaren unibertsaltasuna ukatzen du, ezberdintasun sexuala baldintza sozialak aldatzen joan diren neurrian agertu dela azpimarratuz.

Menpekotasun sozial historiko hau dela eta, iharduera batzuk emakumeentzat egokiak kontsideratzen dira eta beste batzuk ezegokiak. Mende askotan, ia historiaren hasieratik, emakumearentzat iharduera “egokia” etxeko lanez arduratzea izan da. Oraindik ere “normaltzat” jotzen da emakumea “etxeko andrea bakarrik”

izatea. Baina, alde batetik emakumearen egoera “ideala” etxeko lanak egitea eta familiaz arduratzea dela kontsideratzen baldin bada, bestaldetik, nola lan merkatuan enplegu batzuk gizonezkoentzat guztiz ezegokiak direla uste den, lanpostu batzuk emakumezkoak bete beharrekoak direla esaten da. Aurreko hau kontrarian nabarmena da eta garbi uzten du egoera hau interes konkretuen ondorioa dela.

Sarritan, emakumeak bere bizi-tza lan-merkatutik kanpo bideratzeko posibilitatea, berak bakarrik duen aukera positiboa bezala aurkezten da, kontutan hartzeke aukera hau desabantaila eta oztupo bihurtzen dela lan-merkatuan parte hartzea erabakitzen duenean.

Eginkizunen ezberdintasuna ematen denez ez bakarrik etxeko lan eta kanpoko lanen artean baizik eta arlo bakoitzaren barruan ere bai, baieztapen hau egin daiteke: lanaren sexual-zatiketa ematen da, sexuaren arabera emakumezko eta gizonezkoen arteko iharduerak bananduta daudenean gizartean, nahiz etxe barruan nahiz kanpoan. Zatiketa honen ondoren gizarte guztietan hierarkia bat ematen da batzuek eta besteek egiten dituzten ihardueren balorazio sozial eta ekonomikoan, eta hierarkia hau emakumeen kalterako izaten da.

Lehen aipatu ditugun bi azpisisistema, erreproduktzio-azpisisistema eta produktzio-azpisisistema, guztiz lotuta daude; eta emakumearen arazoak

---

3. Termino honekin emakumeei dagokien hainbat arazo adierazten da: emakumearen zapalketa, familia, eskubide-berdintasuna, bere partaidetza ezberdina lan-munduan, eta abar.

4. Autore batzuek diote, esate baterako Alice Clark-ek (1919), lanaren zatiketa berdinagoa izan zela industrializazioaren aurreko gizarteetan. Beste autore batzuentzat ordea, ikusi Shorter (1975), industrializazio aurreko gizarteetan ere lanaren banaketa oso nabaria zen eta emakumeek egindako lanen estatusa gizonek egindakoena baino baxuagoa zen.

aztertzerakoan biak ikertu behar dira, famili barruan betetzen duen "rolak" eragina baitu lan-merkatuan duen partaidetzan. Baina eragin hau kontrako zentzuan ere ematen da, hau da, emakumearen egoera laborala aldatzen den neurrian aldatuz doa bere papera ere famili barruan, baita familien egitura bera ere.

Emakumearen egoera laborala aztertzean hiru ezaugarri nagusi agertzen dira: lan-merkatuan duen partaidetza txikia alde batetik, talde inaktibo garrantzitsu bat agertzea emakumeen artean eta, azkenik, bizitza laborala eta famili bizitzaren arteko lotura estua. Emakumearen egoera laboralaren azterketa egiten denean ezinbestekoa da lana eta familiaren arteko analisia egitea. Harrigarria dena da analisi honen beharra desagertu egiten dela gizonezkoena edo eta lan-eskua orokorrean aztertzen denean. Gaia ulertzeko era hau gizar-te-zientzien ikuspegi sexistaren islada besterik ez da, non analisi orokorra gizonezko populazioari egokitzen zaion, populazio femeninoa marginatuz.

Honela, gizonen egoera laboralean bizitza familiarak ez duela eraginik suposatzen baldin bada ere, analisi sakonago batek asimetria hau ez dela guztiz erreala erakusten digu, bizitza familiarak gizonezkoen karrera profesionalean ere eragina baitu, nahiz eta emakumeengan duen eraginaren ezberdina izan. Hau da, emakumea familiaz eta etxeaz arduratzeak gizonaren egoera lan-merkatuan hobetu egiten du, ona da bere lanerako.

Argi dago bada, emakumeak lan-merkatuan jasaten duen diskriminazioa aztertu aurretik komenigarria dela lan-merkatu honetara heldu aurretik jasaten duena finkatzea, bere egoera

laboralean eragin oso zuzena izango du eta.

## **2. Emakumea eta erreprodukzio-sistema**

Edozein gizartek, edozein garaitan eta edozein tokitan, bere iraupena bermatuta edukitzeko espeziearen birsorkuntzaren eta ondasun eta zerbitzuen berregintzaren beharra dauka. Luzaroan, bi erreprodukzio-prozesu hauek toki berdinean egiten ziren eta famili harremanak eta produkzio-harremanak nahastuta zeuden, zaila zelarik batzuk eta besteak bereiztea. Famili unitatea lan-unitatea eta produkzio-unitatea zen aldi berean.

Lantegiak agertzean, eta hauekin makinak, lan-guneak etxetik kanpo atera ziren eta honela familiarentzat egiten zen lana eta alokairu baten truke egiten zena guztiz bereiztuta geratu ziren. Dena dela, Iraultza Industrialak emakumearen produkzioan behin-behineko eragina eta eragin uniformeak ez zuela izan garbi uztea komeni da.

Senarraz eta umeez arduratzen den emakume urbanoaren irudia aurreko mendeetan ere ezaguna zen baina XIX. mendean, hiri industrialak eta lantegiak garatzean, izugarri igotzen da etxeko lanetan "espezializatzen" diren emakumeen kopurua. Eta, garrantziatsuagoa dena, etxeko andrearen irudi hau ideal femeninoa bezala azaltzen da edozein klase sozialetan. Garai hartan emakumearen tokia etxea zela esatea ez zen lema kontserbadorea, mundu guztiak onartzen zuen oinarritzko hastapena baino, eta emakumearen etxetik kanpoko lanaren aurkako argudio bezala erabiltzen zen. Kapitalismoan,

aurreko giza sistemetan gertatzen ez zen bezala, giza produkzioa eta produkzio domestikoa prozesu paralelo eta independenteak bezala azaltzen dira.

Erreproduzio-lana edo etxeko lana, nahiz eta ofizialki errekonozitzeke egon, elementu guztiz beharrezkoa da ekonomiaren funtzionamendurako eta ez elementu marginala, maiz adierazten zaigun bezala. Gaurko gizarteek funtzionatzen dute, irauten dute eta erreproduzitzen dira ezaugarri diferentteak dituzten bi lan-motari esker. Haue-tariko bat alokairuaren truke egiten da, merkatuan saltzeko truke-balorea duten ondasunak eta zerbitzuak produzitzen ditu eta produkzio kapitalistaren arloan egiten da. Besteak, aldiz, erabilpen-balioa duten ondasunak eta zerbitzuak produzitzen ditu eta famili arloan egiten da, erlazio kapitalistak nagusiak ez diren arloan, eta ez da alokairu baten truke egiten. Ikuspuntu ekonomiko batetik bere helburua lan-indarraren erreprodukzioa litzateke, baina ikuspegi zabalago batetik sozializazio-prozesuak eta bere burua zaindu ezin duten pertsona guztien ardura ere sartuko genituzke helburuen artean. Hau da, etxeko lanen benetako helburua gizakien ongizatea lortzea den bitartean ondasun-produkzioaren helburua mozkinak goren mailara eramatea litzateke.

Mende honetan eta bereziki azken hiru hamarkadetan gertatu diren aldaketa kultural sakonek emakumea, klase ertaineko emakumea –klase baxuko emakumeak beti egin du lan nahiz etxe barruan nahiz etxetik kanpo–, lan-merkatu bultzatu dute. Lanean hasiko dira gazteak direnean eta jada ez dute utziko ez ezkontzen eta ez umeak izaten dituztenean ere. Emakumeek positiboki baloratzen dute

beren partaidetza lan-merkatuan nahiz eta honek ez libratu etxeko lanen ardura eta zamatik. Bilakaera hau dela eta, esan dezakegu iraultza industrialarekin jaio zen egun osoko etxeko andrearen irudia desagertzen ari dela. Honek autore asko sexu-ezberdintasunaren bukaeraren aurrean gaudela esatera bultzatu du. Argumentu hau, noski, guztiz sinplea da, emakumeek bi motatako lanak egiten jarraitzen duten bitartean gizonezkoak, oraindik, bakarrik produkzio-lanetan aritzen baitira gehienbat.

Etxeko lanak egitea garrantzirik gabeko iharduera marginala kontsideratu denez, ez da ikusi kontabilitate nazionalaren barruan sartzeko beharrik. Gaur egun, sektore sozial edo kulturale-tatik eta baita hainbat erakundetatik ere lan domestikoaren balorazioa aldarrikatzen da, gizartearen aurrean duen garrantziagatik, eta baita sektore “produktiboetan” daukan eragina azaltzeko ere. Balorazio hau egiteko bi metodo erabiltzen dira batik bat: alde batetik input-a baloratu, hau da, ondasun eta zerbitzu domestikoak produzitzeko erabiltzen den lan-faktorearen kostua neurtuz, eta beste alde batetik lortzen den output-a baloratu, hau da, etxean sortzen den balio erantsia neurtzen saiatuz. Bigarren metodoa askoz berriagoa da eta gutxiago landua. Lehen metodoari dagokionez berriz, hiru bide erabil daitezke: etxeko lanetan aritzeagatik galdutako alokairua neur daiteke, kanpoko pertsona bat kontratatzeak suposatuko lukeen kostua ere neur daiteke, eta, azkenik, etxean eskaintzen den zerbitzu bakoitza merkatuan lortzea kostatuko litzatekeena balora daiteke.

Egin diren ikerketa guztiak etxeko lanak baloratzeko guztiz beharrezkotzat jotzen baditugu ere, emakumeak

etxe barruan egiten duen lan guztiaren balorazio erreala lortzea ia ezinezkoa dela uste dugu, lan askotan (esate baterako umeak zaintzeko lanean) harreman pertsonalak tartean sartzean beti gutxiegi baloratuko direlako. Horregatik soluzioa ezin da etorri etxeko lanak kontabilitatean sartzearen bidetik. Aldaketak askoz sakonagoa izan beharko luke: gure ustez lehen helburua familia eta pertsonen ongizatea eta bizitza-kalitatea hobetzea izan beharko litzateke (produkzioa erreprodukzioaren zerbitzura eta ez alderantziz) eta honetarako ohizko indikatzaileak ez dira egokienak. Ongizatea neurtzeko eta konkretuki etxeko lanak neurtzeko beste era alternatibo batzuk bilatzen saiatu beharko genuke.

Emakumeek aldaketa kulturala egin dutela garbi dago baina gizarteari oraindik zeregin handia geratzen zaio. Antolakuntza ekonomikoak eta sozialak (eskoletako ordutegia, eta abar) guztiz maskulinoak izaten jarraitzen dute. Hau da, emakumearen kasuan erreallitatea gizonarena baino askoz konplexuagoa da: alde batetik, adin batetik gorako emakumeak ohizko eredura egokitzen dira (etxeko andreak dira); beste batzuk, batez ere emakume ezkonduak, bitarteko egoera batean aurkitzen dira, hau da, lan-merkatuan parte hartzen dute baina etxeko lanak egiten jarraitzen dute; eta azkenik, batez ere ikasketak dituzten emakume ezkongabeak, gizonen eredura egokitzen dira. Gizonezkoen kasuan aldiz, askoz gehiago egokitzen dira eredu maskulinora, askoz nekezago moldatzen dira gizartean ematen ari diren aldaketa kulturaletara eta etxeko buruaren errola mantentzen saiatzen dira burubelari.

Ukaezina da lana egin denek egiten dutela, bai gizonek bai emakumeek. Are gehiago, oro har emakumeak ordu gehiago aritzen dira lanean gizonezkoak baino. Honela, herri industrializatuetan emakumeek lan guztiaren % 51 egiten dute, gizonek gainerakoa egiten dutelarik. Gertatzen dena da gizonezkoek egiten duten lanaren ia bi herenak Nazio Kontuetan kontabilizatuta daudela eta herena bakarrik dela ordaindugabea. Emakumeen kasuan berriz, proportzio hauek alderantzizkoak dira.

Euskal Autonomia Erkidegoan ere herri industrializatuetako joera berbera ematen da: emakumeek gizonek baino 1,18 ordu gehiago lan egiten dute egunero, baina gizonek emakumeek baino denbora gehiago ematen diete diruz saritutako iharduera produktiboei, zehazki 2,11 ordu gehiago, eta emakumeek ordea, haiek baino denbora gehiago diruz ez saritutako iharduera produktiboei, zehazki 3,29 ordu gehiago.<sup>5</sup>

Gainera, egindako ikerketek erakusten digute gizonek etxeko lanen bat egiten dutenean lanen banaketa hau ezberdina dela: emakumeek egiten dituzte egunerokoak eta astunenak (bazkariak prestatu, garbiketak egin, umeak, gaixoak eta zaharrak zaindu), eta gizonek berriz bere gain hartzen dituzte aste bukaeretan egin daitezkeenak (kotxea garbitu, konponketak egin edo erosketa handiak egiten lagundu).

Luzaroan ekonomilariek ez dute kontsideratu produkzio domestikoa ekonomiaren zati bezala, baina azken hamarkadetan interes berria somatzen da kategoria ekonomiko gisa tratatzeko.

---

5. Denboraren erabilera soziala. Denbora-aurrekontuen inkesta, 1993. Eustat.

Interes hau zeharo nabarmentzen da lanaren zatiketaren izaera naturala zalantzan jartzen hasten denean eta zenbait "output" (ume-kopurua eta zainketa-lanak besteen artean) jaisten hasi direnean, eta horrekin batera zerbitzu hauek betetzeko kostu sozialak igotzen. Produkzio domestikoari buruz bi ekonomi teoria nagusi aurkitzen ditugu: alde batetik eskola neoklasikoaren barruan koka daitekeen "Familiaren Ekonomia Berria" aurkitzen da eta bestetik tradizio marxista eta feministatik sortutako "Etxeko Lanei buruzko Eztabaida"<sup>6</sup>. Bigarren honetan kokatzen dira ikuspuntu marxistatik egin diren ahaleginak etxeko lanak aztertzeke (lan domestikoa produkzio-modua al da? baliorik sortzen al du? emakumea lanesku-erreserba al da?... ) eta eztabaidak puntu askotan irekia jarraitzen duenez oraindik ere ez dago etxeko lanei buruzko teoria orokorrik.

Hirurogeiko hamarkadan sortzen den Chicagoko eskolako Familiaren Ekonomia Berria (FEB) teoriaren aitzindari bezala Giza Kapitalaren Teoria alde batetik eta Kontsumoaren Teoria Modernoa bestetik har daitezke. Teoria neoklasikoaren kontzeptu eta tresnak hartuz errealitatearen inguru berri batera aplikatzen ditu: familiaren ingurura. Aipagarria da ekonomi terminoa *oikonomia* eta *oikos*-etik ('etxe') datorren arren, eta Aristotelesentzat bizitza familiarraren zientzia adierazten zuen arren, Becker-en teoriekin aldaketa sakona ematen dela merkaturak proposatzen baita familiaren eredu.

FEB hiru elementu nagusitan oina-

rritzen da: familiaren erabilgarritasun-funtzioa, produkzio domestikoaren funtzioa eta familiek erabakiak hartzeko orduan aurre egin behar dieten murriztapenak. Lehen, erabilgarritasun-funtzioa, ez da teoria neoklasikoarentzat bezala indibiduala izango, familiarra baizik, hau da familia bere osotasunean hartzen da eta honen helburua mozkinak goren mailara eramatea litzateke. Bigarrena, produkzio domestikoaren funtzioa, enpresako produkzio-funtzioan oinarrituta dago eta familiek merkaturak erositako ondasunak eta denbora erabiliz "ondasun domestikoak" nola lortzen dituzten azaltzen du (janak, garbiketak, zainketa zerbitzuak...). Hirugarren elementuak, murriztapenak, mozkinen areagotze prozesua mugatzen du eta hauen artean betiko aurrekontu-murriztapenaren ondoan denbora-murriztapen berria dugu; "denbora" faktore mugatua da eta merkaturako lan, etxeko lan eta aisiaren artean banatu beharko da.

Teoria honek jaso dituen kritika garrantzitsuenetarikook honako hauek dira: familiaren barruan ematen den lan-zatiketa gizon eta emakumeen artean abantaila konparatiboen teoriaren arabera azaltzen da, baina ez da azaltzen zein den abantaila konparatibo hauen jatorria; erabiltzen duen familiaren erabilgarritasun-funtzioa suposatzen ari da familiaren barruan ez dela kontrako interesik ematen, hau da, familia unitate guztiz harmonikoa dela eta hau ez da batere errealista; ez du kontuan hartzen familien erabakiak ez direla beti arrazionalak izaten eta ohiturek, faktore kulturalak eta arau sozialek erabakietan zerikusi handia dutela.

---

6. M. Benston (1977); C. Delphy (1982); M. Dalla Costa (1977); J. Harrison (1975); W. Seccombe (1975).



### 3. Emakumea produkzio-sisteman

Berrogeita hamarreko eta hirurogeiko hamarkadetan burututako ikerketa askok emakumearen enplegua aztertzen zuten eta ez da batere harritzekoa gertatzen ari ziren aldaketa sozialak ikertzaileengan, batez ere soziologo eta psikologoengan, interesa sortzea. Bigarren Mundu-Gerrak emakumearen iharduera-tasan aldaketa-momentua suposatu zuen eta honek bere aldetik eragin nabaria izan zezakeen familien egiturari. Emakumearen iharduera-tasa etengabe igo da azken hamarkadetan eta bere parte hartzea handitu egin da sektore guztietan. Aldaketa hau azaltzerakoan (askoren ustez aldaketa baino gehiago benetako iraultza izan da), maiz "eragin feminista" erabiltzen da, hau da, emakumeak lanari buruz zuen jarrerari eman den aldaketa erradikala. Baina ukalezina da 70.eko hamarkadatik aurrera eman diren aldaketa ekonomikoek ere zerikusia izan dutela iharduera-tasa femeninoaren igoeran, bereziki zerbitzu-sektorearen garapenak. Honela hirugarren sektorea hedatzean laneku femeninoaren eskaria nabarmen igo da. Autore batzuen ustez (Power 1983), arrazoi ideologiko, ekonomiko eta legislatiboek batera eragin dute eman den aldaketan eta badira erlazio zuzena ikusten dutenak ere kontsumo-ondasun iraunkorren hazkunde, aldaketa demografiko eta emakumearen enpleguaren artean ere.

Oraindik ere gizonen iharduera-tasa emakumeena baino altuagoa da datuak dauden herri guztietan behintzat. Baina emakumearen iharduera-tasa igo egin da 1950etik hona nahiz eta azken bi hamarkadetan igoera nahikoa

makala izan: 1970ean % 36koa zen eta 1990ean % 40koa<sup>7</sup>. 1994an tasa altuena herri nordikoek zuten % 56arekin, OCDEko herrietan % 44koa zen eta, berriz, EAEn % 40,2koa eta gizonena ordea % 64,6koa. Aipagarria da orain dela urte batzuk emakumearen bizitza profesionala eten egiten baldin bazen ezkontzean eta umeak izatean, orain 25 eta 49 urteen arteko emakumeen iharduera-tasa etengabe igo egin ari dela Europako herri guztietan eta gizonen oso antzekoa dela (Europar adin-tarte horretako emakumeen iharduera-tasa % 67,6koa zen 1991n). Emakumearen iharduera-tasa igo egin da, gizonezkoenak jaisteko joera izan duenez (batik bat 25 urtetik beharagoena eta 50 urtetik goragoena) emakumearen partaidetza populazio aktiboan asko igo da eta honela 1991n, Europar 10 aktibotik 4 emakumezkoak ziren. Berdintasunerako joera ere ikusten da enplegu-tasak aztertzerakoan: honela EAEn 1994an emakumearen partaidetza enplegu osoan % 34,2koa bazen 1985ean bakarrik % 27,9koa zen.

Lan-merkatua sakonki aztertzean ezberdintasunak agertzen hasten dira: emakumeak batik-bat zerbitzu-sektorean eta oso lan gutxitan kontzentratuta daude, gizonak baino gutxiagotan, eta lanbide baten barruan ematen den hierarkian beti postu baxuenak betetzen dituzte. Emakumea oso adar gutxitan kontzentratzeari "bereizkeria horizontala" esaten zaio eta "bereizkeria bertikala" emakumeak bere posibilitateei dagokien ardura-lanpostuak lortzeko dituen zailtasunak azaltzeko erabiltzen da (hau da, koalifikazio baxu, soldata baxu eta gorabide-aukera gutxiko lanetan duen kontzentrazioa azaltzeko). Egin diren ikerketa enpiri-

7. Datuak, PNUDEko azken txostenetik eta EUSTATEko Estatistika Boletinetatik aterata daude.



koak (gehienak Estatu Batuetan eta Britainia Handian) azpimarratzen dute lanbideen bereizkeriak jaisteko joera duela, eta gehien aldatu dena emakumeak postu profesional eta exekutiboretan aritzeko aukerak direla. Dударik gabe legediaren aldaketak aurrerapausu nabarmena suposatu du honetarako. Lan batzuek (Hakim 1981) diote XX. mendean zehar bereizkeria horizontala jaitsi egin dela baina bereizkeria bertikala igotzen ariutako litzatekeela.

Dena den, nahiz eta hobekuntza batzuk eman, egia dena da lanbideen bereizkeriak oso fenomeno zabaldua izaten jarraitzen duela. Aipagarria da emakumearentzat hain negatiboa izan den bereizkeria honek azken urteetan ondorio positiboak izan dituela ikuspuntu koantitatibotik. Batez ere lan-eskaria aurretik feminizatuta zegoen zerbitzu-sektorean konzentratzean eskatu diren lan asko emakumeek eskuratu dituzte (aipagarria da enplegu publikoan gertatutakoa) (Bettio 1987).

Diskriminazio hau azaltzen duten bi teoria nagusi aurkitzen ditugu: Giza Kapitalaren Teoria eta Lan Merkatuaren Zatiketaren Teoria. Tradizio ortodoxoaren barruan, Giza Kapitalaren Teoria garatu zuten lehen autoreak Schultz (1961, 1968) eta Becker (1964) izan ziren. Teoria honek dio jendeak bere buruan inbertitzen duela (hezkuntza, heziketa profesionalean, osasunean, etab.), inbertsioaren irabaziak etorkizunean lortzeko asmoarekin. Teoria honen arabera, giza kapitalean egindako inbertsioak produktibitatearen igoera suposatuko du eta hau alokairu altuagotan itzuliko da. Giza kapitalaren teoriarekin emakumearen ordainketa-arazoak aztertzeko burutu ziren lehen lanak Mincer eta Polacheck (1974) eta Polacheck-enak (1975) dira. Nola bitzta osoan zehar

populazio aktiboan aritzeko aukera ezberdinak dituzten gizon eta emakumeek, giza kapitalean egindako inbertsioa ere ezberdina izango da eta jasotako alokairuak ere bai: emakumeek bere buruan gizonen baino gutxiago inbertituko dute eta honela, bere produktibitatea baxuagoa izatean alokairu baxuagoak izango dituzte. Hau da, emakumearen diskriminazioa azaltzeko eskaintza-faktoreak erabiltzen dituzte eta emakumearen lan eskaintza gizonarena baino ahulagoa dela azpimarratzen dute.

Teoria honek aztertzen duen beste puntu bat giza kapitalaren depreziazioaren arazoa da. Depreziazioa eta honekin produktibitate-jaitsierarik handiena lana uzten den garaian gertatuko litzateke. Honek, noski, eragin zuzena dauka emakumeen lanean, umeak jaio eta hazten ari diren garaian emakumearen lanuztea gizonarena baino handiagoa delako. Emakumeek kontuan hartzen dutenez faktore hau, egingo duten aukera garbia da: gutxien depreziatzen diren, eta honekin ordainketa-galera txikienak dituzten lanak aukeratuko dituzte (lan hauek, emakumeak bertan konzentratzean, lan "femenino" bihurtuko dira). Ikuspuntu feminista batetik produktibitatearen ideia hau kritikatu egiten da, merkatuko koalifikazioekin bakarrik lortzen dela produktibitatea handitzea suposatzen ari delako, eta ez ditu kontuan hartzen emakumeak arlo domestikoan lortutako koalifikazioa, esate baterako. Gainera, ez dago batere garbi merkatuko lan guztiek koalifikazioa igotzen dutenik (lan monotono eta errepetitiboen kasuan behintzat, hau zalantzan jartzen da).

Dena dela, errealitatean gertatzen diren alokairu diferentzia guztiak ezin dira teoria honen bidez azaldu eta ara-

zo honi erantzuna emateko, ekonomilari batzuek, teoria neoklasiko beraren barruan, Diskriminazioaren Ekonomia garatu zuten. Gaia aztertzeko era berria dakar, enpresariak duten diskriminatze "gustua" edo "afizioa" kontzeptuak sartzen dituelako. Batzuentzat (Alexis 1973), diskriminatze gustua enbidian oinarritzen da, beste batzuentzat (Krueger 1963) gertatzen dena da diskriminatzaileak praktika honekin irabazten ateratzen direla.

Tradizio ortodoxoaren barruan, azkenik Bergman-en (1971, 1974) lanak aurkitzen ditugu. Autore hau alokairuak eta lanbideen bereizkeria erlazionatzen ahalegintzen da: nola emakumea lan askotatik baztertuta dagoen, emakumearen eskaintza lan femeninoetan konzentratzen da eta gehiegizko lan-eskaintza hau izango da alokairu baxuen arrazoi nagusia.

Diskriminazioa azaltzeko bigarren teoria nagusia, Lan Merkatuaren Zatiketa teoria, eskola "instituzionalistak" (Piore 1975, 1980; Doeringer eta Piore 1975) eta "ekonomilari erradikalak" deiturikoak (Edwards, Reich eta Gordon 1975) hasi ziren garatzen Estatu Batuetan hirurogeiko hamarkadan eta lan merkatu zatituak, lan-merkatu neoklasikoaren alternatiba bezala proposatzen ziren, arazoa eskariaren ikuspuntutik aztertzen zutelarik. Jatorrizko ereduak eta aldi berean eredu sinpleenak (Piore 1975) lan-merkatua bi sektoreetan, lehena eta bigarrena, banatuta dagoela dio: lehen sektoreak alokairu onak eskaintzen ditu, lan-baldintza onak, gorabide aukerak eta, batez ere, egonkortasuna. Berriz, bigarren zatiko enpleguak gaizki ordainduta egoten dira, lan-baldintza txarrak eskaintzen dituzte, gorabide-aukera eskasak eta lanpostu ezegonkorak

izaten dira. Emakumea bigarren zati honetan aurkituko litzateke batik bat.

Zatiketa teoria arrazoiak, instituzionalistentzat, enpresariak eta sindikatuek langile konkretu batzuen (gizonak gehienbat) egonkortasuna bultzatzeko duten interesean aurkitzen da. Ekonomilari erradikalen ustez, berriz, zatiketa kapitalismo konkurrentzialetik kapitalismo monopolistikora pasatzean ematen da: enpresariak ahaleginduko dira langileen konzentrazioak sortzen dituen tentsioak gaindintzen langileen zatiketaren bidez. Denek onartzen dute adina, arraza edo sexua enpresariak sortutako kategoriak ez badira ere, hauek ezberdintasunak sakontzen saiatu direla. Azkenik, ikerketa askok diote emakumea bigarren zatian egotearen arrazoiak ez dela merkatuan aurkitu behar, familian betetzen duen paperean baizik.

Errealitateko datuek azaltzen digute EAEko egoera ez dela desberdina eta hemen ere diskriminazioa nabarmena dela: konkretuki 1994an EAEn emakumeen % 84,8a zerbitzu-sektorean aritzen zen. Eta zerbitzu-sektorearen barruan, emakumezkoen lan-populazioa lau iharduera-adarretan biltzen da: denda eta ostalaritza; administrazio, osasun eta irakaskuntza; beste zerbitzu-mota batzuk, ez komertzialak, pertsonalak eta etxeak; eta zerbitzu komertzialak. Esan beharra dago lan-merkatuan ere sarritan emakumeak familia barruan beti egin ohi dituen lanak egiten jarraitzen duela.

Honela, gaur egun emakumearen hileko batezbesteko soldata gizonarena baino % 28 baxuagoa da CC.OOK atera berria duen txosten baten arabera. Gizon eta emakumeek "lan ber-

dinagatik” jasotako soldatak aztertzen badira ezberdintasunak ia-ia desagertu egiten dira. Alokairu-diferentziaren arrazoia koalifikazio-maila ezberdinean bilatu behar da: emakumeek soldata baxuagoak dituzte koalifikazio baxuagoko lanak egiten dituztelako. Baina ez dago oso garbi zer adierazi nahi den termino honekin; eta garrantzitsuagoa dena, bere esanahia lanaren zatiketa sexualari guztiz lotuta dago. Koalifikazioa kontzeptu soziala da eta gizonezkoak eta emakumezkoak lan ezberdinak egitean, askotan nahikoa izaten da lan bat emakumeak egitea koalifikazio baxuagoa esleitzeko, nahiz eta gizonak egindako lanaren balio berdina izan.

Hau da, askotan emakumeak egindako lana koalifikazio baxukoa kontsideratzen da bakarrik emakumeak egiten duelako. Honela, zerbitzu sektoreak koalifikazio baxuko enplegu asko sortu ditu emakumeentzat. Baina denbora partzialeko lanak denbora osokoak baino kategoriaz baxuagokotzat jotzen dira eta emakume asko mota honetako lanetan aritzen direnez, arrazoi honegatik ere beren estatusa hondatu egiten da. Zer esanik ez, zainketa-lan guztiak, umeak zaintzea eta zerbitzu sozialak bezalakoak, koalifikaziorik gabekoak kontsideratzen dira. Diskriminazio honekin amaitzeko koalifikazio-sistema aldatu beharko litzateke eta “balore berdineko lan” kontzeptua aplikatu beharko litzateke.

Datu hauen guztien arabera garbi dago emakumeak zailtasun handiak dituela behin lana aurkitutakoan, baina lana aurkitzeko ere gizonak baino oztopo handiagoak ditu, hau da, bere

langabezi-tasa gizonarena baino altuagoa da herri guztietan. EAEn, esate baterako, 1994an langabezi-tasa oso altua bazen (% 25a) emakumearena oraindik ere altuagoa zen, % 35a hain zuzen ere. Langabezi-tasa altuago hau ezin da azaldu gaur egun (hirurogeita hamarreko hamarkadan egin zen bezala) lehen azaldutako ahultasunaren hipotesiaren bidez, emakumearen parte hartzeak nahiz lan-merkatu orokorrean nahiz sektore “produktibo” ezberdinetan igotzen jarraitu baitu krisia eta guzti. Gaur, emakumearen langabezia altuagoak garbi azaltzen du nahiz eta bere aukerak lana aurkitzeko krisi-garaitan txikiagoak izan, hau ez dela nahikoa emakumea atzeratzeko.

Ez du ematen emakumearen lan-eskaintzan joera-aldaketa gertatuko denik (eskaintzak igotzen jarraituko dela uste da) eta langabezia femeninoa handitzeko (edo behintzat ez jaisteko) arriskua handia denez, egoerari aurre egiteko bi motatako neurriak proposatzen dira. Alde batetik gobernuek ekintza positiboak<sup>8</sup> bultzatzeko beharra azpimarratzen da: derrigorrezko kuotak, publizitatea, heziketa politikak, etab. Azken aldian, “balio berdineko lanagatik alokairu berdina” jasotzearen aldeko estrategia bultzatzen ari dira, baztertuz pixka bat “lan berdinegatik alokairu berdinarena”, azken hau ez delako oso eraginkorra lanbideen bereizkeria hain nabarmena ematen den bitartean. Bereizkeria honekin amaitzeko ere neurriak onartu beharko dira nahiz eta garbi egon ez dela epe laburrean konpontzeko moduko arazoa.

Ekintza positiboak guztiz beharrezkoak dira: administrazioak emakumea-

---

8. Ekintza Positibo terminoa Estatu Batuetan sortu zen 1965ean. Ekintza Positiboen helburua errealitatean gertatzen diren diskriminazioak baztertzea da. Ez doaz bada “berdintasunaren” aurka, alderantziz, benetako berdintasuna lortzeko guztiz beharrezkoak dira.

ren enplegua bultzatu behar du baina gaurko langabeziari aurre egiteko ohizko enplegu-politikak ez dira nahiko eta indar handia hartzen ari dira lanaren banaketari buruzko proposamenak. Ez da ene helburua lan-banaketaren eztabaidan sartzea, baina azpimarratu behar da eztabaida hau ezin dela egin emakumearen egoera berezia kontuan hartzeke eta proposatutako eta hartutako neurriek ezin dutela inoiz emakumearen integrazio-prozesua atzeratu. Bestalde, lanaren banaketa ez da

bakarrik enpleguaren banaketa, lan guztien (nahiz diruz ordaindutakoa nahiz ez ordaindutakoa) banaketa baizik, emakumeek pausu garrantzitsua eman baitute lan merkatuan sartzean, gizonek bere portaera oso gutxi aldatu baitute eta etxeko lanetan hauen parte hartzea txikia baita. Etxeko lanak denen artean banatzean, seguru asko gizarteak gehiago baloratuko du emakumeak luzaro inolako onespenik gabe eginiko lanak.

## Bibliografia

- Actes de la journée d'études du 4 Mars 1993, (1993): *L'emploi des femmes*. La documentation française, Paris.
- Amorós, C., (1995): *10 palabras clave sobre mujer*, Verbo Divino, Lizarra.
- Becker, G., (1979): *Tratado sobre la familia*, Alianza Universidad, Madril.
- Benería, C., (1992): "La globalización de la economía y el trabajo de las mujeres", *Mientras Tanto* 48, 113-139, Bartzelona.
- Borderías, C., Carrasco, C., Alemany, C., (1994): *Las mujeres y el trabajo. Rupturas conceptuales*, Economía crítica, ICAR, Bartzelona.
- Bresson, Y., (1994): *Le partage du temps et des revenus*, Economica, Paris.
- Carrasco, C., (1995): "Un mundo también para nosotras", *Mientras Tanto* 60, 31-49, Bartzelona.
- , (1991): *El trabajo doméstico. Un análisis económico*, Ministerio de Trabajo y Seguridad Social, Madril.
- Dex, S., (1985): *La división sexual del trabajo. Rupturas conceptuales en las Ciencias Sociales*, Ministerio de Trabajo y Seguridad Social, Madril.
- Emakunde, (1992): *Emakumeak Euskal Autonomi Elkarte*, 3. txostena, Gasteiz.
- , (1994): *Familia eta etxe-arlokoa Euskal Autonomi Elkarte*, 7. txostena, Gasteiz.
- Gorz, A., (1995): *Metamorfosis del trabajo*, Sistema, Madril.
- Peinado López, A., (1988): *La discriminación de la mujer en el mercado de trabajo español. Una aproximación empírica a la discriminación salarial*, Ministerio de Trabajo y Seguridad Social, Madril.
- Ruesga, S., (1992): *Economía y trabajo*, Economía y trabajo, Madril.